

## Euskadin erroldatuta dauden gazte etorkinetatik erdia Hegoameriketarik dator

Euskadiko etorkinen kolektiboa gazteagoa da Espainiako batez bestekoa baino. Era berean, atzerriko gazteak Euskadiko 30 urtera arteko biztanleen % 11,2 dira.


2008ko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldak adierazten du Euskadin atzerriko 39.588 gazte erroldaturik daudela. Aurreko aldiekin alderatuta, atzerriko gazteen kolektiboa hazi egin da: izan ere, kolektiboak % 73,0 egin du gora 2001etik hona.

Gazte etorkinen kolektiboa Euskadiko gazteen % 11,2 da. Kolektibo horretan, mutilen kopurua (% 50,7) neskena baino apur bat altuagoa da (% 49,2). Adin-taldee dagokienez, kolektiboaren erdia baino gehiago 25 eta 29 urte bitartekoak dira (% 49,0), % 33,1 20 eta 24 urte bitartekoak eta % 18,0 15 eta 19 urte bitartekoak.

Jatorrizko kontinenteari buruz, datuek aditzera ematen dute immigranteen erdia Ameriketarik datorrela, % 27,5 Europatik, % 18,2 Afrikatik eta gainerakoak Asia (% 5,0) eta Ozeanitik (% 0,1).

Atzerriko gazteen artean, eta jatorriari erreparatuta, bi kolektibo nagusi antzematen dira: Ameriketakoak eta Europakoak. Europarren artean jatorrizko herrialde nagusiak Errumania (% 46,2) eta Portugal dira (% 22,7); amerikarren artean gehienak Hegoameriketakoak dira, eta jatorri nagusienak Bolivia (% 23,1), Kolonbia (% 20,0), Ekuador (% 13,6), Brasil (% 10,4) eta Paraguai (% 6,4) dira.

Datuak generoen arabera aztertuz gero ikus daitekeenez, Ameriketako gazte taldean nesken proportzioa handiagoa da mutilena baino. Europarren kolektiboan, aldiz, egoera alderantzizkoa da.



Iturria: Biztanleen Udal Errolda 2008-01-01ean. INE eta bertan egina

## Espainiako egoerarekiko konparaketa

Euskadiko biztanle atzerritarrak gazteagoak dira Espainiakoak baino. Izan ere, etorkinen kolektiboaren % 33,7 ez dira 30 urteetara iristen; Espainian, ordea, adin tarte horretako pertsonak % 29,7 dira bakarrik.

Euskadiko atzerritarrak biztanleria gazteak, ordea, proportzio apalagoa osatzen du Espainiakoak baino: Euskadiko gazteen artean immigranteak % 11,2 dira; Espainian, aldiz, % 17,5 dira.

Espainiako autonomia erkidego gehienetan, Euskadin bezala, atzerriko biztanleria gazteagoa da Espainiakoaren batez bestekoa baino. Alabaina, beste autonomia erkidego batzuk beste muturrean daude, adibidez Andaluzia, Balear Uharteak, Kanariak, Valentziako Erkidegoa, Ceuta Hiria eta Melilla Hiria.

Baina Euskadin eta autonomia erkidego gehienetan etorkin gazteek ehuneko txikiagoa osatzen dute bakoitzaren gazteen kolektiboan, Espainia bere osotasunean hartuta baino. Hala ere, bada Espainiako batez bestekoa baino altuagoa duen autonomia erkidegorik, hala nola Aragoi, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Madrilgo Erkidegoa, Murtziako Eskualdea eta Errioxa.

<b>Euskadin, Espainian eta autonomia erkidegoetan erroldatutako 15 eta 29 urte bitarteko atzerritar biztanleak. Portzentajeak. 2008</b>		
	Atzerritar gazteen % atzerriko biztanle guztiekiko	Atzerritar gazteen % gazte guztiekiko
<b>Euskadi</b>	<b>33,7</b>	<b>11,2</b>
<b>Espainia</b>	<b>29,7</b>	<b>17,5</b>
Andaluzia	26,8	9,7
Aragoi	33	21,5
Asturiako Printzerria	32,3	7,5
Balear Uharteak	25,4	26
Kanariak	23	15,1
Kantabria	32	10,2
Gaztela eta Leon	33,5	11,7
Gaztela-Mantxa	36	17,7
Katalunia	31,3	25,2
Valentziako Erkidegoa	25,2	22
Extremadura	31,6	5,1
Galizia	30	6
Madrilgo Erkidegoa	32,5	26,4
Murtziako Eskualdea	30,4	22,3
Nafarroako Foru Komunitatea	34	20
Errioxa	32,6	24,4
Ceuta Hiria*	19,2	3,4
Melilla Hiria*	22,7	9,1

Iturria: Biztanleen Udal Errolda 2008-01-01ean. INE eta bertan egina  
\* Hiri autonomoak

#### **Erlazionaturiko datuen kontsulta:**

EAEn erroldaturiko atzerritar gazteei buruzko adierazle estatistikoak

#### **Erlazionaturiko estekak:**

Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak